



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko maiatzaren 3a

41. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea hein batean aldatu zuen apirilaren 4ko 4/2006 Foru Legea aldatzen duena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hezkuntza Departamentuan zerbitzu berri bat, Prebentziorako eta Balioen Hezkuntzarako Zerbitzua izenekoa, sor dezan. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako arte garaikidearen zentroa sortu eta abian jar dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako eta nazioko gobernuak premiatzen dira Nafarroako eta Errioxako jatorrizko deituretako ardoen kalitatea defenda dezaten. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Batzordeak onetsia (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, jakiteko ea zer datu darabilen Nafarroako Gobernuko lehendakariak esateko Espainiako Gobernuak Nafarroari buruzko ituna egin duela ETArekin, foru parlamentari Félix M.^a Taberna Monzón jaunak egina (8. or.).

—Galdera, jakiteko ea zergatik jarri duen Nafarroako Gobernuak berriz ere Sanz Barea jauna FMko irrati-lizentzien kontratazio mahaiaren buru, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (9. or.).

—Galdera, hezkuntza arloan biztanle bakoitzeko egiten den gastuari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (10. or.).

—Galdera, Mendillorriko Elorri ikastetxe publikoan hezkuntza lerro bakarra irekitzeari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (10. or.).

- Galdera, ikasleak sexuaren arabera banatzen dituzten ikastetxe itunduei buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (11. or.).
- Galdera, ikastetxe itunduetako 2006-2007rako aurrematrikulazioari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (11. or.).
- Galdera, Gobernuko lehendakaria ikasleak sexuaren arabera banatzen dituen ikastetxe batera joan izanari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (12. or.).
- Galdera, ezgaituen zentroetako prezioei eta erabiltzaileen altak eta bajak baimentzeari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egin (12. or.).
- Galdera, Onkologia Zentroa eraiki eta hornitzeko aurrekontuari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egin (13. or.).
- Galdera, Sarrigurengo bizilagunen aurrematrikulazio eskaerei eta ikasle horiek hartuko dituzten ikastetxei buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egin (15. or.).
- Galdera, Altsasuko 0tik 3 urtera bitarteko ikastetxeari buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egin (15. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea hein batean aldatu zuen apirilaren 4ko 4/2006 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2006ko apirilaren 10ean hartutako erabakiaren bidez, Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea hein batean aldatu zuen apirilaren 4ko 4/2006 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea hein batean aldatu zuen apirilaren 4ko 4/2006 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz tramitatzea.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun baliouduneko epea hasiko da eta 2006ko maiatzaren 22ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariiek zuzenketak aurkeztu ahalgo dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Foru Lege proiektua, Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea hein batean aldatu zuen apirilaren 4ko 4/2006 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENEA

Martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legearen bidez, Nafarroako Foru Komunitateko boluntarioen lana arautu zen, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44. artikuluko 17., 14. eta 18. zenbakiek Nafarroari erabateko eskumena esleitu baitzioten gizarte laguntzaren, aisialdiaren erabilerara egokiaren, komunitatearen garapenaren eta hirugarren adinekoren arloetan.

Legeak boluntarioen entitateei aseguru-poliza bat izenpetzeko betebeharra, besteak beste, ezartzen zien, boluntarioek boluntario lanetan aritzen ziren bitartean jasaten ahal zituzten eritasun arriskuei aurre egiteko.

Foru lege horrek indarra hartu zuenetik izaniko esperientziak direla-eta, boluntarioen entitateek poliza horiek izenpetzerik eta, hortaz, baldintza hori betetzerik ez dutela frogatu da. Beraz, onetsitako araudia ezin da bete.

Hori dela kausa, Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat bidali zion Parlamentuari arau haren aldaketa proposatzeko, batetik, boluntarioen entitateei ezarritako betebeharrak merkatuko benetako aukeretara egokitzeko eta, bestetik, argi uzteko hirugarrenei eragiten zaizkien kalte-galerak ere bere gain hartu beharko dituela estaldurak.

Hala ere, Bolondres lanari buruzko apirilaren 27ko 2/1998 Foru Legea aldatu zuen apirilaren 4ko 4/2006 Foru Legeak boluntarioen eritasunak estaltzeko aseguru bat ezarri zuen berriz, nahiz eta, proiektu haren zioen azalpenean adierazi eta Parlamentuak hitzez hitz onetsi bezala, betebeharrak

hori betetzea ezinezkoa den, merkatuan ez baita-go hori estaltzen duen polizarik.

Horregatik, kontuan harturik boluntarioen erakundeek beste testu arau-emaile bat onesteko egin duten eskaera, legearen kontrako egoera batean aritu behar ez izateko, bidezkoa da apirilaren 4ko 4/2006 Foru Legea aldatzea, boluntarioen eritasunak estaltzeko aseguru poliza bat sinatu beharraren beharkizuna kentzeko.

Artikulu bakarra. Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru legea aldatu zuen apirilaren 4ko 4/2006 Foru Legearen aldaketa.

4/2006 Foru Legearen 6.3.b) eta 11.2 artikulua aldatzen dira. Honelaxe geldituko dira:

Bat. 6.3 artikulua.

“b) Boluntarioen lanaren zuzeneko ondorioak diren istripu eta kalte-galera arriskuen kontra aseguruak izatea, erregelamenduz ezartzen diren ezaugarri eta diru kopuruen arabera.”

Bi. 11. artikulua.

“2. Aipatu entitateek aseguru-poliza bat izenpetu beharko dute, boluntarioek boluntario lanetan aritzen diren bitartean izaten ahal dituzten istripu arriskuei aurre egiteko, eta beren jardueraren ondorioz eragin ditzaketen kalte-galerengatik hirugarrenen aurrean erantzukizuna hartzeko.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hezkuntza Departamentuan zerbitzu berri bat, Prebentziorako eta Balioen Hezkuntzarako Zerbitzua izenekoa, sor dezan.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Hezkuntza Departamentuan zerbitzu berri bat, Prebentziorako eta Balioen Hezkuntzarako Zerbitzua izenekoa, sor dezan."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

Gure erkidegoko osasun eta hezkuntza agintarien aurreikuspenak gairitzen dituen munta hartzen ari da gazteen droga kontsumoaren fenomenoak. Argi dago substantzia toxikoak –legezkoak nahiz legez kanpokoak– egon badaudela, eta gazteek haiek erabiltzen eta gehiegi ere erabiltzen dituztela, baita gure erkidegoko eskola-ingurunean ere.

Hezkuntza Departamentuan, gai honetan ikastetxeei laguntzeko ekipo teknikoak hauexek dira; zeharkako gaien eta balioen aholkularitzan lan egiten duen funtzionario bat, departamentuko

Ikasketak Antolatu eta Hezkuntza Berriztatzeko Zerbitzuko Curriculum Diseinuaren Bulegoan sarturik dagoena.

Itxura guztien arabera, ez da nahikoa Hezkuntza Departamentuak daukan egitura ia hutsa –pertsonek bat– gizartearen errealitate honen gaurko eta etorkizuneko arriskuei aurre egiteko. Presakoa da diziplina arteko prebentzioaren arloko teknikarien talde bat edukitzea egitura administratibo batean; talde horretan, arlo batzuetako (drogamenpekotasunak, nutrizioa, sexu hezkuntza, generoa...) adituak (gizarte langileak, gizarte hezitzaileak...) egonen dira, planteamendu orokor batetik abiatuta ikastetxe guztiei eta hezkuntza maila guztietan laguntza eman ahal izateko. Talde horrek oinarrizko gizarte zerbitzuekin batera eta herri bakoitzeko osasun zentroekin batera koordinaturik egiten du lan.

Honakoak izan daitezke teknikarien talde horren eginkizunak: irakasleen prestakuntza, prebentzio planen diseinua, irakasleen saioren prestaketa eta jarraipena, prebentzio programak ikasgelan zuzenean aplikatzea, ikastetxeko gazteen arteko bitartekariak prestatzea, gurasoen tailerrak egitea ikastetxeetako gurasoen elkarteekin koordinaturik eta haien inplikazioarekin.

Xedea da ikastetxeetako irakasleei laguntza ematea, beti presente egonen den prestakuntza espezializatu batekin, hain zuzen hezkuntza sistemako irakasleek prebentzioaren eta ikasgelan nahiz ikastetxean gerta daitekeen arrisku handiko edozein egoeratan nola jardun jakin dezaten. Erkidego mailan, teknikari horiek irakasleei aholkua eman ahal izanen diete ikastetxea dagoen inguruneko gizarte egoeraren diagnosis egiteko. Halaber, harremanetan jarriko da inguruneko baliabide guztiekin (hezkuntza baliabideak, gizarte baliabideak, osasun baliabideak...)

Honakoak izan daitezke bigarren hezkuntzako ikastetxeetan aplikatzekoa den prebentzio programa baten edukiak: auto-estimua, gizarte trebetasunak, estrategia kognitiboak, kontrol emozionala, erabakiak hartzea, drogei buruzko informazioa, aisiarako alternatibak, tolerantziarako eta lankidetzarako prestakuntza, nerabeen inteligentzia anitzen aktibazioa...

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Hezkuntza Departamentuan zerbitzu bat sordezan, izen honekin: Prebentziorako eta Balioen Hezkuntzarako Zerbitzua.

2. Behar diren hautapen prozedurak eginez, Hezkuntza Departamentuaren plantillan sar dezan prebentzioaren arloko teknikarien talde bat -Prebentziorako eta Balioen Hezkuntzarako Zerbitzua osatuko dute- laguntza eman diezaien Nafarroako ikastetxe guztiei hezkuntza tarte guztietan.

Iruñean, 2006ko apirilaren 21ean

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako arte garaikidearen zentroa sortu eta abian jar dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako arte garaikidearen zentroa sortu eta abian jar dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

Nafarroako gizartearen aspaldidanik ari da eskatzen arte garaikideko zentro bat sor dadin, gure garaiko arteen inguruko prestakuntza, dokumentazioa, sustapena eta zabalpena errazteko eta sendotzeko.

Orain dela denbora ugari hasi zen salatzen kulturaren arlo ezberdinetatik arte-sorkuntza sus-

tatzaren arloan, oro har, eta arte garaikidearen eta abangoardiako artearen arloan bereziki, dagoen hutsa, ezin mantendu daitekeena.

XXI. mendearen hasieran gaudela, Nafarroako bezalako gizarte batean, non modernitatearen eta garapen kulturalaren aldeko apustua egiten baita, ezin dugu ulertu nola garen autonomia erkidego bakarria arte garaikideko zentro bat ez duena eta eskakizun horri arretarik eta erantzunik ematen ez diona.

Talde sozialistako kideei ezinbestekoa iruditzen zaigu Nafarroako arte garaikidearen zentroa sortzea; zentro horri egokituko zaizkio, beste eginkizun batzuen artean, tailerren eta beste proposamen batzuen bitartez sormena eta esperimendazioa sustatzea, antzeko erakundeekiko eta bilduma-egile pribatuekiko truke- eta lankidetzaren politika bat bultzatzea eta, era berean, Nafarroako sortzaileak sustatzea eta Nafarroako, nazioko eta nazioarteko arte-panoramako funts adierazgarri bat eratzea. Halaber, kultur arloko parte-hartzerako eta dinamizazioarako erakunde gisa finkatu behar da.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ahal den bezain laster Nafarroako arte garaikidearen zentroa sortu eta abian jar dezan.

Iruñean, 2006ko apirilaren 27an

Eleduna: Fernando Puras Gil

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako eta nazioko gobernuak premiatzen dira Nafarroako eta Errioxako jatorrizko deituretako ardoen kalitatea defenda dezaten.

NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA ELIKADURA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Batzordeak, 2006ko apirilaren 26an egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako eta nazioko gobernuak premiatzen dira Nafarroako eta Errioxako jatorrizko deituretako ardoen kalitatea defenda dezaten".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako eta Nazioko gobernuak premiatzen dira Nafarroako eta Errioxako jatorrizko deituretako ardoen kalitatea defenda dezaten

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako eta Nazioko gobernuak premiatzen ditu:

Irizpide gisa defenda dezaten eta, kasua bada, arautu dezaten haritza erabiliko dela soilik mahai-ko ardoak egiteko, eta, hala bada, horixe adieraziko dela nahitaez etiketan.

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko ea zer datu darabilen Nafarroako Gobernuko lehendakariak esateko Espainiako Gobernuak Nafarroari buruzko ituna egin duela ETArekin.*FORU PARLAMENTARI FÉLIX M.^aTABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Félix M.^a Taberna Monzón jaunak egindako galdera, jakiteko ea zer datu darabilen Nafarroako Gobernuko lehendakariak esateko Espainiako Gobernuak Nafarroari buruzko ituna egin duela ETArekin. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Felix Taberna Monzonek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako

galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak, presaz, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuko lehendakari Miguel Sanzek adierazi du informazioa eta datuak baditu-ela esateko Espainiako Gobernuak planeatu duela Nafarroari buruzko kontzesioak egitea ETari. Baitz tapen horien larritasuna ikusita, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Legebiltzarrean azaldu beharko lituzke, bere ekimenez.

Hala eta guztiz ere, une hori iristen den bitartean, ondoko galdera egin nahi dugu:

Zer datu darabil Nafarroako Gobernuko lehendakariak esateko Espainiako Gobernuak Nafarroari buruzko ituna egin duela ETArekin? Datu horiek Legebiltzarrari emateko moduan dago?

Iruñean, 2006ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Félix Taberna Monzón

Galdera, jakiteko ea zergatik jarri duen Nafarroako Gobernuak berriz ere Sanz Barea jauna FMko irrati-lizentzien kontratazio mahaiaren buru.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, jakiteko ea zergatik jarri duen Nafarroako Gobernuak berriz ere Sanz Barea jauna FMko irrati-lizentzien kontratazio mahaiaren buru. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

2006ko apirilaren 10ean, lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilari Francisco Iribarren jaunak jakitera eman zuen agerraldiaren aurretik izaniko gobernu-bileran, UPN-CDNren exekutiboa kontratazio-mahaiaren txosten berriaren jakitun izan zela; izan ere, haren bitartez proposatzen zen bi lizentzia ematea bi irrati horiei. Hain zuzen ere, Nafarroako Unibertsitateak 83,34 puntu lortu zituen eta Medios de Comunicación 21 irratiak 75,29 puntu.

Nafarroako Auzitegi Nagusiak joan den urteko abenduaren 22an eman zuen epaiaren arabera, lehiaketako kontratazio-mahaiak berriz baloratu behar zituen Informazioaren Gizarterako zuzendari nagusi eta kontratazio-mahaiaren buru Ángel Sanz Barea erabakitako puntuazioak. Epaiaren

arabera, une horretantxe kontratazio-mahaiak ez zuen bete aholku emateko zeukan eginkizuna, zeren eta garrantzizko alderdiak baitziren orduan departamentuko burua zen José Ignacio Palacios kontseilariak izenpetu zuen amaierako erabakirako; erabaki hori hartu zuen, hain zuzen ere, Sanz Barea puntuazio-tarte zehatzetan zeuden hutsu-nee buruzko txostena eman ondoren. Emaizta badakigu zein izan zen. Epaiaren honakoa adierazi zen Sanz Barea jarduerari buruz: onberak izaki, desegokia (ez zegoen arauetan), kontrasesankorra (lehendakari zela puntuatu nahi izan ez zituen puntuak baloratu zituen Sanz Barea) eta ondorioz gabea (iritzi pertsonala den neurrian, ez du garrantzirik izan behar azken adjudikaziorako).

Nafarroako Auzitegi Nagusiaren erabakiaren ondoren, berriz jarri zen abian adjudikazio prozesua; prozesu horren buru, beste behin, Ángel Sanz Barea jarri da, Parlamentuak gaitzetsi bazuen ere eta dimititzeko eskaria egin bada ere, 1998an izan zuen esku-hartzea zela eta, gaur egun Gizarte Ongizate Departamentuaren buru Ignacio Palaciosekin gertatu den bezala.

Hori dela eta, hauxe jaki nahi dut:

Demostraturik geratu ondoren Ángel Sanz Barea, zuzendari nagusi gisa, kudeaketa txarra egin zuela eta ez zuela inongo gaitasunik izan adjudikazio prozesua zuzentzeko, zergatik jarri du Nafarroako Gobernuak berriz ere kontratazio-mahaiaren buru, ezagututa Nafarroako Parlamentuak eta Nafarroako Auzitegi Nagusiak hartu dituzten erabakiak?

Iruñean, 2006ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, hezkuntza arloan biztanle bakoitzeko egiten den gastuari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea hezkuntza arloan biztanle bakoitzeko egiten den gastuari buruz foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurak, Legebiltzarreko erregela-

menduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion.

Hezkuntza arloan biztanle bakoitzeko egiten den gastuari buruzko galdera.

Nafarroa da, oro har, biztanle bakoitzeko gastu handiena duen erkidegoa. Hezkuntzaren arloko inbertsioaren kasuan, zergatik da azken erkidegoetako bat, % 14,6ko inbertsioarekin, Murtzia (% 28) eta Kanariar Uharteak (% 26,8) izaki inbertsio handienak egiten dituztenak?

Iruñean, 2006ko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Mendillorriko Elorri ikastetxe publikoan hezkuntza lerro bakarra irekitzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Mendillorriko Elorri ikastetxe publikoan hezkuntza lerro bakarra irekitzeari buruz foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurak, Legebiltzarreko erregela-

menduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion.

Mendillorriko Elorri ikastetxe publikoan hezkuntza lerro bakarra irekitzeari buruzko galdera.

Mendillorriko Elorri ikastetxe publikoari 2006-2007 ikasterterako hezkuntza plangintzan bi lerro esleitu zaizkio: zer dela eta ireki de lerro bakarra, ikastetxeko zuzendaria behartuz aurrez izena emanda zeuden 5 ikasle kanporatzera?

Iruñean, 2006ko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, ikasleak sexuaren arabera banatzen dituzten ikastetxe itunduei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea ikasleak sexuaren arabera banatzen dituzten ikastetxe itunduei buruz foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko erregela-menduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion.

Ikasleak sexuaren arabera banatzen dituzten ikastetxe itunduei buruzko galdera.

Uste al du kontseilariak ikasleak sexuaren arabera banatzen dituzten Nafarroako ikastetxe pribatuak Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuarekin itunduta egon daitezkeela?

Iruñean, 2006ko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, ikastetxe itunduetako 2006-2007rako aurrematrikulazioari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea ikastetxe itunduetako 2006-2007rako aurrematrikulazioari buruz foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko erregela-

menduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion.

Ikastetxe itunduetako 2006-2007rako aurrematrikulazioari buruzko galdera.

Hezkuntza kontseilariaren iritziz, zer dela eta igo da berriz ere –aurreko urteetan bezala– 2006-2007 ikasturtean seme-alabak ikastetxe itunduetan matrikulatzea erabakitzen duten gurasoen ehunekoa, % 43 –2.648 familia– izateraino, hain zuzen aurreko urtean baino % 21 gehiago?

Iruñean, 2006ko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Gobernuko lehendakaria ikasleak sexuaren arabera banatzen dituen ikastetxe batera joan izanari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Gobernuko lehendakaria ikasleak sexuaren arabera banatzen dituen ikastetxe batera joan izanari buruz foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurak, Legebiltzarreko erregelatutako

menduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion.

Gobernuko lehendakaria ikasleak sexuaren arabera banatzen dituen ikastetxe batera joan izanari buruzko galdera.

Apirilaren 25ean, ikasleak sexuaren arabera banatzen dituen ikastetxe itundu baten 40. urtemugako ekitaldi nagusian egon zen Nafarroako Gobernuko lehendakaria.

Zeren ordezkari joan zen Nafarroako Gobernuko lehendakaria aipatu ikastetxean antolatutako ekitaldira?

Iruñean, 2006ko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, ezgaituen zentroetako prezioei eta erabiltzaileen altak eta bajak baimentzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, ezgaituen zentroetako prezioei eta erabiltzaileen altak eta bajak baimentzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Gizarte Ongizateko kontseilariak idatziz erantzun ditzan.

Ezgaituentzako zentroetako itunei buruz igorritako dokumentaziotik eta zentroetako okupazioari, altei eta bajei buruz lortutako erantzunetatik, honako ondorioak atera daitezke:

– Postu itunduetako prezioetan politika ezberdinak daude: Carmen Aldave egoitzakoak dira garestienak, ezgaituen gainerako zentroetan baino nabarmen garestiagoak.

– Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak 23 baja baimendu ditu Ramón y Cajal zentroan 2004an eta 10 baja 2005eko lehen seihilekoan.

– Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak baimena eman du Carmen Aldave egoitzan sartzeko Ramón y Cajal zentroan baja eman zuten 26 pertsona.

– Enplegu erregulazioa Ramón y Cajal zentroan, 2006ko urtariletik.

Informazio horren aurrean, hauxe da gure galdera:

1.- Zein arrazoi daude itunetako prezioetan alde hain handiak justifikatzeko? Zergatik dira Carmen Aldave egoitzako postu itunduak hain garestiak, beste zentro batzuetako postuekin alderatuta?

2.- Nori dagokio ezgaituentzako zentro itunduko erabiltzaile izaera aitortzea? Eta zentro horietako bajak eta altak ematea?

3.- Zein arrazoi, irizpide eta helburu direla-eta justifikatu da Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak baimena ematea Ramón y Cajal egoitzako 33 erabiltzailerik baja emateko?

4.- Zein arrazoi, irizpide eta helburu direla-eta justifikatu da Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak baimena ematea Ramón y Cajal egoitzan baja eman zuten 26 erabiltzailerik Carmen Aldave egoitzan sartu ahal izateko?

5.- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren eta Ramón y Cajal eta Carmen Aldave zentron artean sinaturiko itunen baldintza administrati- boen orrian ageri denez, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak bete gabe dagoen postu huts bakoitzeko ordaintzen du. Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut: Aldi berean ordaindu al dira baimendutako bajengatik Ramón y Cajalen hutsik geratutako 26 plazak, eta pertsona horiexen Carmen Aldave egoitzako 26 altak? Zenbateko kostua izan dute Ramón y Cajal egoitzako bajek eta Carmen Aldave egoitzako sarrerek 2004an eta 2005ean? 2004ko eta 2005eko urteei buruzko informazio berezia nahi dugu bajengatik hutsik geraturiko postuei buruz eta Carmen Aldave egoitzako sarrerei buruz.

Iruñean, 2006ko apirilaren 25ean

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Onkologia Zentroa eraiki eta hornitzeko aurrekontuari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, Onkologia Zentroa eraiki eta hornitzeko aurrekontuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

2006ko martxoaren 7an egin nizkion galderari Osasun kontseilariak eman zien erantzuna jaso dut, eta horietako batzuei ez dienez erantzun, galdera horiek errepikatu beharrean nago, parlamentaria naizen aldetik dudan eskubidearen arabera-ko informazioa lortu ahal izateko.

Nafarroako Gobernuak, 2001eko ekainaren 11n, onkologia plana onetsi zuen.

Planaren funtsezko erdigunea onkologia zentroa eraikitzea zen. Heldu beharreko gai garrantzitsuena eta lehentasunezkoa zen erradioterapiaren arloa. Planak jarduteko kronograma eta zenbatespen ekonomiko bat aurreikusi zituen.

Xede horretarako 2003., 2004. eta 2005. urteetan aurrekontuetan jasotakoaren eta betetakoaren jarrapena egiten bada, honako emaitza lortuko dugu:

Kontusailaren izena	2003. urtea		2004. urtea		2005. urtea	
	Aurrekontua	Betetakoa	Aurrekontua	Betetakoa	Aurrekontua	Betetakoa
Ikerketa eta tratamendu onkologikoaren unitatearen jarduerak	2.247.000 euro	1.137.000 euro (% 50)				
Plan onkologikoko obrak			2.542.000 euro	139.000 euro (% 5,46)		
Onkologiarako ekipamendua			1.026.000 euro	44.000 euro (% 4,28)		
Berritze teknologikoa			1.325.000 euro	0 euro (% 0)		
Plan onkologikoko obrak					2.864.200 euro	173.727 euro (% 6,04)

Hiru urteetan aurrekontuetan guztira jasotakotik, 10.004.200 eurotik, 1.493.727 euro baizik ez dira bete; hau da, % 1,49.

Kontuan hartu behar da 2001eko onkologia planaren beraren arabera, Nafarroako Ospitaleko azeleragailu lineala zaharkiturik zegoela, eta ONOZeko zuzendari kudeatzailearen 1796/2001 Ebazpenaren bidez erradioterapiarako ekipamendua erosi zela, hau da, hiru azeleragailu lineal; kontuan hartu behar da, halaber, 2006an gaudela, eta honezkero Nafarroako Ospitaleko azeleragailu lineala behin eta berriz matxuratzen dela. Hori guztia dela eta, hona galderak:

1.- Noizko aurreikusten zen onkologia planaren erradioterapiako aparatuak jartzea? Onkologia planaren kronograma nahi dugu, gobernuak 2001ean onetsitakoa.

2.- Egin al da plan horretan aldaketarik? Baiezkoan, egindako aldaketak eta gobernuam zein bilkuran onetsi zituen jakin nahi ditugu.

3.- Nafarroako Parlamentuak aurrekontuetarako onetsitakoaren eta Nafarroako Gobernuak 2003., 2004. eta 2005. urteetan betetakoaren artean dagoen aldeari buruz, hona galderak:

– Zein izan dira aurrekontuaren betetze txiki horren arrazoiak?

– Zertarako erabili dira, azkenean, aurrekontuetan jasotako diru kopuru horiek, zure erantzunaren arabera Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren beste beharrizan batzuetarako bideratu zirenak? Aurrekontuetan egindako aldaketak eza-gutu nahi ditugu.

Iruñean, 2006ko apirilaren 25ean

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Sarrigurengo bizilagunen aurrematrikulazio eskaerei eta ikasle horiek hartuko dituzten ikastetxeei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, Sarrigurengo bizilagunen aurrematrikulazio eskaerei eta ikasle horiek hartuko dituzten ikastetxeei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten.

Azken hilabeteetan, aurreneko bizilagunak hasi dira Sarrigurenen bizitzen, hain zuzen ere bertan garatzen ari den hirigintza-gunean, datozen urteetan aintzat hartzeko moduko hirigune bat izateraino hazten joanen dena.

Ikusita Sarrigurengo bizilagun berri horietako batzuk eskolara joateko adinean daudela eta berriki bukatu dela 2006-07 ikasturterako matrikulatzeko epea, Hezkuntza kontseilariak ondoko galderari erantzutea nahi dugu:

Aurrematrikulazioa egiteko zenbat eskaera jaso dira Sarrigurengo biztanleek aurkeztuak? Adinen, ikasketen eta hizkuntza ereduaren arabera datuak nahi ditugu.

Zein ikastetxetan erantzunen zaio 2006-07 ikasturtean matrikula-eskari horri?

Iruñean, 2006ko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

Galdera, Altsasuko 0tik 3 urtera bitarteko ikastetxeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, Altsasuko 0tik 3 urtera bitarteko ikastetxeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du Altsasuko 0tik 3 urtera bitarteko ikastetxeari buruz, Hezkuntza kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Parlamentuan 2004ko maiatzean eginitako agerraldian, Hezkuntza kontseilariak konpromisoa hartu zuen 2006an, besteak beste, Altsasun 0tik 3 urtera bitarteko zikloa jartzeko.

Egin duen azken agerraldian, 2006ko maiatzaren 15ean, kontseilariak adierazi zuen 0tik 3 urtera bitarteko ikastetxeetarako "funtsean 2004ko maiatzeko plangintzari eusten zaiola", baina ez zuen Altsasu aipatu ez 2006ko, ez 2007ko hitzarmenen artean.

Hori dela eta, Hezkuntza kontseilariaren azalpenak nahi ditugu Altsasuko 0tik 3 urtera bitarteko ikastetxearen etorkizunari buruz, eta erantzun bat eman dezala hura eraikitzeko Gobernuak dauzkan aurreikuspenei buruz.

Iruñean, 2006ko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	